



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO

Esp.kodea: 2025PHEL0001

Gaia: Lan Aukera Eraikuntza Enplegu-formakuntza programa

ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

1/ KONTRATAZIOA

| LANPOSTUA | PROIEKTUA | JARDUNA / IRAUPENA |
|----------------|---|---|
| 8 peoi langile | LAN AUKERA-ERAIKUNTZA, enplegu-formakuntza programa. Arrasateko Udalaren ardurapeko hainbat kirol instalazio eta espazioen kalitatea hobetzeko egokitzapen-lanak egitea, zehazki igeltserotza eta pintura lanekin lotuta. | 6 hilabete, %75 jardunean (2025eko irailaren 23ra arte) |

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Arrasaten erroldaturik egotea bai hautagaitza enplegu-eskaintzara bidaltzen den momentuan bai kontratua hasteko egunaren aurreko egunean.
- Kontrataturako pertsonak langabetuak izan behar dira, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa alta egon, bai hautagaitza enplegu-eskaintzara bidaltzen den momentuan bai kontratua hasteko egunaren aurreko egunean.
- Zaurgarritasun-egoeran edo bazterketa-arriskuan egotea, egoera horiek ulertuta hauetako kasuren baten egotea:
 - DSBEa eta/edo BGE jasotzen duten titularrak edo onuradunak.
 - Luzaroko langabetuak: Luzaroko langabetutzat joko dira hautagaitza bidali aurretiko 540 egunetan, gutxienez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa inskribatuta egon eta langabezian gutxienez 360 egun eman dituztenak.
 - Kualifikazio baxuko langabeak: enplegu-eskaeran 23. Mailatik gorakoa ez den bitartekotzako prestakuntza-maila adierazi duten pertsonak: DBHko graduatu titulua edo baliokidea.
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, laguntza espezifikoak jasotzen dituztenak edo lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenak -harrera-baliabideetatik datozelako edo bestelako egoera batean daudelako-, egoera berezi hori egiaztagiri bidez egiaztatuta dutenak eta Enplegu-eskaintzan izaera berezi horren aipamena dutenak.
 - %33ko desgaitasun-maila edo handiagoa aitortua dutenak.
 - Gizarte-bazterketan dauden edo egoteko arriskuan daudenak, Gizarte Zerbitzuek egiaztatutakoak.
 - Zaurgarritasun-egoeran dauden beste pertsona batzuk, enplegu-politiken arabera lehentasunezko arretako kolektibotzat hartzen direnak-Enpleguari buruzko otsailaren 28ko 3/2023 Legearen 50. Artikuluan definitzen diren moduan.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO

Esp.kodea: 2025PHEL0001

Gaia: Lan Aukera Eraikuntza Enplegu-formakuntza programa

- d) Gaztelaniazko maila nahikoa edukitzea, ahoz zein idatziz, formazio saioetan eta lan jardunean aritzeko.
- e) “Oreka eta ekitatea lortzeko lurralde-proiektu berriak. Kolektibo kalteberak” inbertsioaren 2023-2024 deialdian diruz lagundutako proiektu batean aritzeko kontratatua ez izatea, salbu eta behar adina parte-hartzaile ez egoteak proiektua abian jartzea eragozten badu; kasu horretan, pertsona horien parte-hartze justifikatua baimenduko litzateke.
- f) Igeltserotza eta pintura lanetan aritzeko osasun ezintasunik edo bestelako eragozpenik ez edukitzea.

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, aurreko puntuan ezarritako b), c) eta e) baldintzen arabera.

4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

8 hautagaien aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiek egiaztatutako merituak baloraturaz.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

Epaimahaikideak:

- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat, ordezkaritza sindikalak proposatuta.

Idazkaria:

- Udal funtzionario bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, hautagaien zerrenda, hautaketa frogan informazioa eta abar) udaleko web orrian argitaratuko dira (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko dira BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO

Esp.kodea: 2025PHEL0001

Gaia: Lan Aukera Eraikuntza Enplegu-formakuntza programa

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**

- Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
- Tel.: 943 252000
- baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

LANBIDEk egindako hautagaien aurretiko aukeraketan onartutako hautagaiei, Arrasateko Udalak antolatuko duen proiektua aurkezteko hitzaldi informatibora deituko zaie. Behin proiektua ezagututa, interesatuta daudela adierazteko, “baimen informatua” dokumentua sinatu beharko dute proiektuan parte hartzeko hautaketa prozesuan jarraitzeko.

Interesa adieraziko duten hautagaiek behean azaltzen diren probak egin beharko dituzte, eta merituen balorazioa egingo zaie, honela:

- **Merituak: (50 puntu)**

- B gidabaimena: 10 puntu.
- Euskara: 1. HE egiaztatzea (agiriz edo proba eginez): 10 puntu
- Lan esperientzia edukitzea igeltsero eta pintura lanetan: hileko puntu 1, gehienez 10 puntu.
- Igeltsero eta pintura arloko prestakuntza edukitzea (lehen mailako ziurtagiri profesionala gutxienez): 10 puntu
- Zaurgarritasun-egoeran edo bazterketa-arriskuan egoteko kontratatzeko baldintzen atalean zehaztutako kasu baten baino gehiagotan egotea: bigarren kasutik aurrera 5na puntu, gehienez 10 puntu.

- **Probak: (50 puntu)**

- *Kompetentzia linguistikoko proba:* Gaztelaniazko kompetentzia linguistiko nahikotasuna neurtzeko proba. 0-10 puntura baloratuko da eta gutxienez 5 puntu atera beharko dira aurrera egiteko.
- *Teoriko-praktikoa:* Igeltsero eta pintura arloari buruzko proba teoriko-praktikoa. 0-30 puntura baloratuko da eta gutxienez 15 puntu lortu beharko dira aurrera egiteko.
- *Elkarrizketa:* motibazioa, parte hartzeko prestutasuna eta aukeraren beharra neurtzeko elkarrizketa egingo da. 0-10 puntura baloratuko da eta gutxienez 5 puntu atera beharko dira aurrera egiteko.

- **Hautaketa:** Behin puntuazioaren arabera hautagaien zerrenda osatuta, kontratatuetako 3 emakumeak izango dira, beti ere hautagaien artean emakume nahikoa balego.